

2002KO URTARRILAREN 31KO
OHIKO OSOKO BILKURA

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta biko urtarilaren hogeita hamaikan, iluntzeko zazpitan, Lazkaoko Udal Osoa biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Felix Urkola Iriarte Alkatearen lehendakaritzapean, ohiko batzaraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Igor Sarriegi Zumarraga, Inazio Estensoro Eskisabel, Gorka Lamy Intsausti, Arantxa Zumelaga Agirre, Irantzu Amundarain Irizar, Joseba Hernandez Madinabeitia, Jon Agirre Garmendia eta Urko Irastortza Aldanondo.

Jose Antonio Dopazo Martin eta Jose Luis Otamendi Romero zinegotziak ez dira bertaratu.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurutuzak dihardu.

I.- AURREKO AKTA-

Alkateak bilkurari hasera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkezten da 2001eko abenduaren 27an egindako bilkurako akta.

Esan behar da 4 H.A.ko S.4.1, S.4.2 eta S.4.3 gunetako xehetasun azterketaren onarpenean, akats material bat dela medio, estimatzen den alegazio zatian "garajeetako sarrera bidea aldatzea, sarrera erreka aldetik izango delarik" barneratu behar delarik baita ere.

Gainontzean akta idatzita dagoen moduan onartzen da.

II.- ALKATETZAKO EBAZPENEN BERRI EMATEA-

Ondoren Alkateak azken Osoko Bilkuratik gaur arte emandako Alkatetzako Ebazpenen berri ematen du, ebazpen hauen zenbakizko laburpen baten bidez.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditzen da.

III.- JOSE ANTONIO DOPAZO MARTIN ZINEGOTZIAREN KARGU UZTEA-

Alkateak José Antonio Dopazo Martín zinegotziak bere zinegotzi kargua utzi egiten duela adieraziz aurkeztutako idatziaren berri ematen du.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditzen da

Jarraian Alkateak zera esaten du:

Lehenik eta behin, Jose Antonio Dopazok udal honetako zinegotzi karguari uko egiteko hartutako erabakiarekiko, gure errespeto osoa agertu nahi genuke.

Aldi berean nahi genuke,

...///...

...///...

- ETAk euskal gizarte osoaren aurka egindako hilketa ugarien aurrean
- Inongo arrazoirik gabe eskatzen zaien txantajea, ordaintzen ez badute, mehatxua jasan behar dutenen aurrean
- Gure gizarteko gutxi batzuk erabiltzen duten intolerantziak, beraien ideiak gainontzekoei inposatzeko beldurra eta erasoak erabiltzen dutenen jarreraren aurrean
- Eta gaur bereziki, euskal biztanle askoren askatasuna mugatzen dituen mehatxu eta jazarpen indarkeria kanpainaren aurrean

Adierazi

Indarkeria erabat gaitzesten dugula eta bizitza eskubidea etsi gabe defendatzeko konpromiso argia berresten dugula. Bizitza eskubidea, elkarbizitzarako oinarria da. Hau da, gizakien urratu ezinezko eskubidea errespetatzea, gizakien segurtasun fisiko eta morala errespetatzea, eta gizakien adierazpen askatasuna errespetatzea elkarbizitza eratze oinarriak dira.

Baita ere adierazi nahi genuke

Euskal Herritar guztien askatasun indibiduala defendatuko dugula:

- Askatasuna, koakzio, pertsekuzio eta hilketa mehatxurik gabe bizitzeko. Askatasuna, euskal herritar guzti-guztiek bermea izan dezaten pertsonen dagozkien giza eskubideak erabiltzeko.
- Askatasuna baita ere, ideiak izateko, edozein ideia izateko. Askatasuna, edozein proiektu defendatzeko eta, behar izanez gero, bide politiko eta demokratikoak soilik erabiliz proiektuok gauzatzeko. Aukeratzeko askatasuna, pentsatzeko askatasuna, inposizio eta txantajerik gabe erabakitzeko askatasuna.

Akenik adierazi

Indarkeria, intolerantzia eta terrorismoa edonola sufritu behar izan dutenei nahiz sufritu behar dutenei elkartasun aktiboa eta esker on etikoa, politikoa, soziala eta materiala erakutsi nahi diegula. Eta gaur bereziki Jose Antonio Dopazo eta bere familiarekiko gure erabateko solidaritatea eta babesa agertu nahi genuke.

IV.- BIZTANLEEN UDAL ERROLDAREN ZUZENKETA 2002KO URTARRILAREN 1 DATARA.

Udaleko Zerbitzu Teknikoek 2002ko urtarrilaren 1 datara Biztanleen Udal Erroldaren zuzenketa prestatu dutelarik, Osoko Bilkurara aurkezten dira zuzenketa honen zenbakizko emaitzak, bere onarpenerako.

Zuzenketa honen arabera, Lazkaok bost mila eta hogeita zazpi (5.027) biztanle zituen 2002ko urtarrilaren 1ean. Zenbaki hau ondorengo eragiketen emaitza dugu:

...///...

...///...

KONTZEPTUAK	GUZTIRA	GIZONEZKOAK	EMAKUMEZKOAK
Biztanlegoa 2001-01-01 datara	4.902	2.522	2.380
Altak 01-01-01etik 2002-01-01era	293	157	136
Bajak 01-01-01etik 2002-01-01era	168	78	90
Biztanlegoa 2002-01-01era	5.027	2.601	2.426

Osoko Bilkurak, aho batez, 2002ko urtarrilaren 1 datara egindako Biztanleen Udal Erroldaren zuzenketa hau onartu egiten du.

V.- 1 H.A.KO 12 S.O.AN KOKATUTAKO ZENBAIT LURSAILEN DERRIGORREZKO JABETZA KENTZE ESPEDIENTEA.-

Alkateak adierazten du orain Osoko Bilkurara aurkezten den akordio proposamen hau 2001eko urriaren 4ko Osoko Bilkuran hartua izan zela, baina akordioa hartu ondoren jakin izan zela aurrez egindako jendaurreko erakustaldian jabeak diren zenbait oinordekoei jakinarazpen pertsonala ez zitzaizela egin. Hau honela eta falta ziren jakinarazpenak egin ondoren eta horretarako ezarritako denboraldian inolako erreklamaziorik aurkeztu ez delarik, berriro Osoko Bilkurara aurkezten da bere onarpenerako.

Akordio proposamena:

Udal Osoko Bilkurak, 1999ko urtarrilaren 28an egindako batzarraldian, Planeamenduko Arau Subsidiarioetako 1 Hirigintz Areako 12 Sistema Orokorra (Euskadi Enparantza) urbanizatzeko lur guztiak publiko izan daitezen okupatzea beharrezkoak diren ondasun eta eskubideen zerrenda haserako izaeraz onartzea erabaki zuen.

Ondasun eta eskubideen zerrenda hau jendaurrean eduki eta interesatuei banakako jakinarazpena egin zaielarik, horretarako irekitako denboraldian ez da inolako erreklamazio edo obserbaziorik aurkeztu.

Ukitutako lurjabeekin izandako elkarriketetan, 4 zbk.dun lursailaren jabeekin adostasunera iritsi ahal izan da eta lursail hau lur trukaketa baten bidez eskuratu du Udalak.

Bestalde Jabetza Erregistrotik jasotako informazioaren arabera, 1 zbk.dun finkaren titularitatea aldatuta dagoela ikusi ahal izan da, benetako jabeak haserako onarpenean azaltzen direnak ez baizik Maria Jose Larrañaga Sasiambarrena, Jose Angel Larrañaga Sasiambarrena, Jose Maria Echeverria Lasa eta Milagros Redrado Lapeña direlarik.

Hau honela Osoko Bilkurak, aho batez, zera erabakitzen du:

1.- Planeamenduko Arau Subsidiarioetako 1 Hirigintz Areako 12 Sistema Orokorra (Euskadi Enparantza) urbanizatzeko lur guztiak publiko izan daitezen okupatzea beharrezkoak diren ondasun eta eskubideen zerrenda behin betikoz onartzea.

...///...

...///...

2.- Akordio honen aurrekinetan adierazitako zirkunstantziak direla eta, Udalak eskuratzeko dauzkan finkak eta hauen titularrak honako hauek direla:

UKITUTAKO LURJABE ETA LURSAILEN ZERRENDIA.-

1 Zbk.dun finka.-

Higiezinaren deskripzioa: Lorenzonea edo Laurenzanea Etxea finkaren zatia den paretez itxitako baratza.

Jabeak: Maria Jose Larrañaga Sasiambarrena, Jose Angel Larrañaga Sasiambarrena, Jose Maria Echeverria Lasa eta Milagros Redrado Lapeña.

* Azalera: 205 m²

* Erregistro datuak:

- Tomoa: 1.611
- Liburua: 76
- Folioa: 214
- Finka: 123
- Inskripzioa: 18.

2 Zbk.dun finka.-

Higiezinaren deskripzioa: Ataiswarena edo Maizwarena Etxearen zatia izan zen baratza.

Jabeak: Cirila Larrañaga Areso A.ren Oinordekoak.

* Azalera: 400 m²

* Erregistro datuak:

- Tomoa: 1.611
- Liburua: 76
- Folioa: 217
- Finka: 1.367
- Inskripzioa: 4.

3 Zbk.dun finka.-

Higiezinaren deskripzioa: Lazkaoko Kontzejuko Plazaren ondoan kokatutakoa eta harri-hormazko paretez inguratutako baratza baten ifar aldearen erdia.

Jabeak: Cirila Larrañaga Areso A.ren Oinordekoak.

* Azalera: 276 m²

...///...

...///...

* Erregistro datuak:

- Tomoa: 1.611

- Liburua: 76
- Folia: 220
- Finka: 895
- Inskripzioa: 7.

VI.- 2002KO AURREKONTUA.-

Alkateak onarpenera aurkezten den aurrekontuaren azalpena egiten du. Esaten du aurrekontu hau guztira 5.482.247,59 € eurotakoa dela; jarraian gastu eta diru-sarreraren kapituluko laburpenaren zehaztapena egiten du. Esaten du baita ere aurrekontu hau 2 urtetarako konpromezuak adostuz ateratako aurrekontua dela eta hauei aurreko urtean burutu ez diren zenbait partida gehitu zaizkiela. Jarraian 2 urtetarako planteatzen diren konpromezuen xehetasuna ematen du eta baita aurreko urtean burutu ez eta aurtengo aurrekontuan sartu diren partidena ere. Esaten du baita ere gastu eta sarreraren arteko aldea parekatzeko mailegua aurrikusten dela baina iazko aurrekontuaren likidazioan izango den gerakinarekin mailegua ez gauzatu behar izatea espero dela.

Aurtengo aurrekontu honetan Aurrekontu-Exekuziorako Udal Araua prestatu da, bere espedientean dagoena, eta gastu eta sarreraren zenbakizko partidekin batera onarpenera jartzen da baita ere. Aurrekontu-Ezekuziorako Udal Arau honetan, besteak beste, gastuetako partiden arteko lotespena, kreditu transferentzi bidezko kreditu aldaketak egiteko eta kreditu zabalkorrak izendatzeko ahalmena zehazten da, hala nola kreditu gerakinen txertaketak onartzekoa eta konpromezu kredituak eta urtez urteko zenbatekoen zehaztapena ezartzen da.

Amundarain zinegotziak (EH) esaten du beraiek abstenitu egingo direla azkeneko Hazienda Batzordearen bileran emandako arrazoiengatik, eta bilera hartako aktan jasota egongo direla esaten du.

Alkateak esaten du bilera hartan Udalbiltza eta Belen Gonzalezen inguruan planteatu zituzten eskakizunengatik izango dela suposatzen duela, eta bera han esandakoan berresten dela gehitzen du.

Guzti honen ondoren, Osoko Bilkurak, aldeko 5 botu (EAJ, EA), aurkako boturik gabe eta 4 abstentzioz (EH), honako akordio hauek hartzen ditu:

Lehena.- Ondorengo kapituluko laburpenak dituen 2002ko Udal Aurrekontua haserako izaeraz onartzea:

...///...

...///...

2002KO AURREKONTUA

SARRERAK:

I	KAPITULUA	ZUZENEKO ZERGAK	721.274,63 €
II	KAPITULUA	ZEHARKAKO ZERGAK	60.101,21 €
III	KAPITULUA	TASAK ETA BESTELAKO ZERGAK	556.116,50 €
IV	KAPITULUA	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	1.779.897,34 €
V	KAPITULUA	ONDARE-SARRERAK	42.708,68 €
VI	KAPITULUA	INBERTSIO ERREALAK INORENGANATZEA	601.012,10 €
VII	KAPITULUA	KAPITAL-TRANSFERENTZIAK	1.803,04 €
IX	KAPITULUA	FINANTZA PASIBOAK	1.719.334,09 €
<u>SARRERAK GUZTIRA</u>			<u>5.482.247,59 €</u>

GASTUAK:

I	KAPITULUA	PERTSONAL GASTUAK	855.133,21 €
II	KAPITULUA	ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN GAS-	1.385.111,47 €
III	KAPITULUA	TUAK	85.000,00 €
IV	KAPITULUA	FINANTZA-GASTUAK	470.780,92 €
VI	KAPITULUA	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	2.584.310,82 €
VII	KAPITULUA	INBERTSIO ERREALAK	101.911,17 €
		KAPITAL-TRANSFERENTZIAK	
<u>GASTUAK GUZTIRA</u>			<u>5.482.247,59 €</u>

Bigarrena.- Aurrekontu hau jendaurrean erakustea hamabost lanegunetako denboraldian, erreklamazio ondorioetarako.

Hirugarrena.- Jendaurreko denboraldian erreklamaziorik aurkeztuko ez balitz, aurrekontu hau behin betikotzat onartua joko litzateke espreski hartutako akordio berri baten beharrik gabe.

VII.- PLANTILLA ORGANIKOA.-

Jarraian eta Hazienda, Pertsonal eta Gobernamentu Batzordetik, Osoko Bilkurara aurkeztu da bere onarpenerako 2002rako Udal Langileen Plantilla Organikoa, bere espedientean aurkitzen dena.

Osoko Bilkurak, Plantilla Organiko hau aztertu ondoren, aho batez, onartzea erabakitzen du.

VIII.- LANPOSTUEN ZERRENDA.-

Jarraian eta Hazienda, Pertsonal eta Gobernamentu Batzordetik, Osoko Bilkurara aurkeztu da bere onarpenerako 2002 urteko Udal Lanpostuen Zerrenda, bere espedientean aurkitzen dena.

...///...

...///...

Osoko Bilkurak, Lanpostuen Zerrenda hau aztertu ondoren, aho batez, onartzea erabakitzen du.

IX.- OROBIONEREN BIRRERAIKUNTZAREN 11, 12 ETA 13. ZIURTAGIRIAK.-

Orobione etxearen birreraikitze lanen obra zuzendaritza daramaten Juan Jose Garmendia Soria eta Roberto Gartzia Azpiri arkitektuek, lanen 11, 12 eta 13. zertifikazioak aurkeztu dituzte.

Zertifikazio hauen zenbatekoak HAMAICA MILIOI LAUREHUN ETA BERROGEITA BOST MILA HIRUREHUN ETA ZAZPI (11.445.307,-) peseta (68.787,68 €), SEI MILIOI ZORTZIREHUN ETA HOGEITA HAMASEI MILA ZAZPIREHUN ETA HAMABOST (6.836.715,-) peseta (41.089,48 €) eta ZAZPI MILIOI ZAZPIREHUN ETA HIRUROGEITA HAMABI MILA ETA BERROGEITA HAMAZAZPI (7.772.057,-) peseta (46.711,00 €) takoak dira eta 2001eko urria, azaroa eta abenduari dagozkie.

Udal arkitekto eta arkitekto teknikoak egindako txostenetan 11 eta 12. zertifikazioetan proiektuarekiko egon diren aldeak eta hauen zergatia azaltzen dute eta eman diren prezio desbideraketak onargarriak direla adieraziz, 11 eta 12. zertifikazio hauek ontzat eman daitezkeela esaten dute. 13. zertifikazioan desbideraketarik ez dagoela esaten dute baita ere.

Proiektuarekiko egondako aldeak proiektuaren aurrekontuarekiko milioi bat bostehun eta laurogeita sei mila bostehun eta hogeita hamalau (1.586.534,-) pesetatako (9.535,26 €) gehikuntza suposatzen du.

Amundarain zinegotziak (EH) esaten du aurrekoan emandako arrazoi berarengatik ez dituztela zertifikazio hauek onartuko.

Hau honela, gaia bozketan jarri eta Osoko Bilkurak, aldeko 5 botu (EAJ, EA) eta aurkako 4 botuz (EH), zertifikazio hauek onartzea erabakitzen du.

X.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, gaueko zortziak hogeita bost gutxi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.